



## i.21. Aditz-izenaren osagarria genitiboan: *ogia*ren *erostera* (v *ogia* *erostera*)

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). Aditz-izenaren osagarria genitiboan: *ogia*ren *erostera* (v *ogia* *erostera*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.  
[Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=57&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

### Gako-hitzak

absolutiboa, genitiboa, kasua, nominalizazioa

### Deskribapena

Euskara batuan eta euskalki gehienetan, aditz-izen iragankorraren osagarriari absolutibo kasu-marka ezartzen zaio aditz jokatuetakoa osagarriarekin egiten den bezala:

(1)	Ogia	erostera	joan	da
	ogia.ABS	eros.NMLZ.ALL	joan.PTCP	3ABS.izan

Iparraldeko hizkera batzuetan, ordea, TOGen izenarekin ezagututako fenomenoak gertatzen da, aditz-izenaren osagarriari (TO) genitiboa (Gen) ezartzen zaio absolutiboaren ordeztu:

(2)	Ogiaren	erostera	joan	da
-----	---------	----------	------	----

## Banaketa dialektala

Gaur egun, fenomeno hau ipar-ekialdeko euskalkietan gertatzen da, hain zuzen, lapurteraz, behe-nafarreraz eta zubereraz (Heath 1972: 48). Epeldek (2004b: 674), adibidez, Larresoroko euskaldun baten lekukotasuna biltzen du:

- (3) Ez ginuen dretxoik atxikitzeo bei oien  
'Ez genuen eskubiderik behi horiek edukitzeo'

Hona hemen nik jasotako Baigorriko emakume baten lekukotasuna ere:

- (4) Mendian eta... hunen egiterat  
'Mendian eta... hau egitera'

Zuazok (2014: 244) azaltzen duenez, genitiboaren erabilera hori lehen Euskal Herri osoko ezaugarria zen baina denborarekin mendebalean eta erdialdean absolutiboa nagusitu da. Azken urteetan, gainera, absolutiboa gehiago zabaldu da Hego Euskal Herrian zehar (Zuazo 2014: 244). Baztanen, erraterako, antzina aditz-izenaren osagarria genitiboz markatzen zen arren, egun absolutiboa erabiltzen da batez ere (Zuazo 2014: 244).

## Datu-basearen emaitzak

Datu-baseko emaitzei dagokienez, ez dute bete-betean bat egiten Zuazok (2014: 244) dioenarekin. Izan ere, Nafarroan, eta zehatzago, Baztanen, bai lekukotzen da fenomeno hau Arizkongo herrian. Baztanez gain, Nafarroako bertze eskualde batzuetan ere lekukotzen da, Mezkiritz eta Orbaizeta herrietan, erraterako. Dena den, Zuazorekin (2014: 244) bat eginez, inkestatuetao bertze nafar guztiek absolutiboa erabiltzen dute genitiboaren orde: Goizuetan, Arbizon eta Urdiainen.

Horrez gain, nafar-lapurteraz hitz egiten duten herrietan lekukotzen da, Oragarre eta Ziburun, baita Zuberoko Urdiñarbe herrian ere. Azkenik, espero genuen bezala, erdialdeko eta mendebaleko inkestatu guztiek absolutiboa darabilte.

## Eztabaida teorikoa

Fenomeno hau ez da aditz-izen iragankorrek dauden kasu guztietan gertatzen. Adibidez, Artiagoitiak (2003: 678) azaltzen du aditz-izena *-tzenegitura* baten barnean dagoenean ez dela beti TOGenaren ematen. Ikus ditzagun adibideak:

---

(5) Peio artoa / artoaren jorratzen ari da.

---

Kasu honetan, *-tzenegituraari izanaditzaren* osagarria da eta TOGen fenomenoak gerta daiteke. Hurrengo adibidean, ordea, *-tzenegitura* aditz laguntzaile baten osagarria denean, absolutiboa da aukera bakarra:

---

(6) Peiok artoa /\* artoaren jorratzen du.

---

Horrez gain, nafar-lapurteraz eta zubereraz fenomeno honen erabileran desberdintasunak daude. Nafar-lapurteraz, erraterako, aditz-izena *-anlokati*boarekin edo *-arekin*komitatuarekin batera agertzen bada osagarria ezin da genitiboan egon (Heath 1972: 59). Lafitteren (1944 [1979]) lanean adibide hauek ikus ditzakegu:

---

(7a) hura ikhustean

(7b) hura ikhustearekin

---

Zubereraren kasuan, aldiz, Heathek (1972: 64) Haritschelharren (1970, apud Heath 1972) eta Gèzen (1875, apud Heath 1972) TOGenaren lekukotasunak biltzen ditu:

---

(8a) haren ikhoustonian

(8b) haren ikhoustiareki

---

Fenomenoaren sorreraren inguruan ere iritzi kontrajarriak daude. Batetik, Zuazok (2014: 244) dio antzina Euskal Herri osoan lekukotzen zela eta gerora TOGenaren erabileraren eremua murriztu joan dela egun arte. Bertzetik, Heathek (1972: 66) uste du Euskal Herriko arkaismoa baino Iparraldeko berrikuntza izan daitekeela.

## Aipamenak

Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.

Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

Heath, Jeffrey, 1972. «Genitivization in northern Basque complement clauses» *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* VI, 46-66.

Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

